

## EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA OREKATUAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko martxoaren 20an Pertsonen Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### JUSTIFIKAZIOA

Abenduaren 15ean burututako Lankidetzako Kontseiluan Euskadiko GGKEN Koordinakundeko ordezkariak kezka agertu zuen 2020 Plan Estrategikoaren lan batzordearen inguruan. Izan ere, batzordearen egituraren desoreka nabaria dago, 37 ordezkarietatik emakumeen presentzia oso eskasa delako. Esate baterako, azken bileran 20 ordezkarietatik hiru bakarrik ziren emakumezkoak.

Otsailaren 21ean udal honek, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, adierazpen instituzional bat onartu zuen. Martxoaren 8an udal ordezkariak publikoki egindako adierazpen hartan, Udalak 7 konpromisoren alde lan egingo zuela adierazi zuten. Helburu horien artean ondorengo hauek daude:

3. neurria: *“Donostiako Udalak hitz ematen du bere kontsultarako organoetako eta bere organo erabakitzaileetako ordezkarien artean emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izango dela, eta gauza bera gertatuko dela Udalak edozein toki-erakundetarako egiten dituen izendapenetan.”*

5. neurria: *“Donostiako Udalak hitz ematen du abian jarriko dituela berariazko ekintzak emakumeen ahalduzko errazteko eta udalerriko gizartean eta politikan parte-hartze handiagoa izan dezaten sustatzeko, batez ere, talde minoritarioak diren emakumeei dagokionez.”*

Lankidetzako Kontseiluko partaideek adierazitako kezka konpartitzen dugu eta adierazpenetatik ekintzetara pasatzeko behararekin bat gatoz. Batzordean behin baino gehiagotan adierazi dugun bezala, etorkizuneko Donostia emakumeen presentziarik gabe aztertzea ariketa okerra dela uste dugu.

Berdintasuneko zinegotzi-ordezkariak batzordean erantzun zigun Berdintasun Sailak laguntza eskaini ziola Plan Estrategikorako batzordeari, baina azken honek ez diola laguntzarik eskatu eta horregatik ez dela neurri zehatzik martxan jarri.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du:

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Plan Estrategikoaren lan batzordearen eta Berdintasun Sailaren arteko lankidetzak sustatu dezala.
2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari neurri sorta bat proposa dezala Udaleko kontsultarako organoetako eta bere organo erabakitzaileetako ordezkarien artean emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea bultzatzeko.
3. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari zehaztu dezala 2017an zein ekintza jarriko dituen abian emakumeen ahalduntzea errazteko eta udalerriko gizartean eta politikan parte-hartze handiagoa izan dezaten sustatzeko, batez ere, talde minoritarioak diren emakumeei dagokienez.

Donostian, 2017ko martxoaren 24an



Olaia Duarte López  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**